

BIZITZAREN AMILDEGIETAN

Odei Arregi

Azkoitia, 16 urte

Bizitzaren amildegietan behera
irristatzen den
amestu gabeko amesgaiztoa naiz.
Garagardo kiratsez,
nikotina kez estaliriko
hitz nahastua.
Masail umelean
behera doan
malko gazia.

Ez da inor
nitaz oroitzen.
Eta urrutiko pagadietan
ezkutatzen naiz
urtaroen joan-etorriak
usteltzen nauen arte.

Heriotzaren besoetan
negar zotinka ari den
haur miliska
urteetan aurrera doan
amona matxuratua naiz
zomorroek jandako
marrubizko hilotza.

Gauza berdinek
izutzen naute:
bakardadeak, ilunak.
Ezer gutxik pozten nau.

Ohe gainean botatako
liburu irekia
poesiaz bustitako
gaizkile berekoia
amaraunez jositako
loredun soinekoa.

Inoiz, aske izan
eta oroitzapenek
preso arturiko
arima erratuekin
oheratzen naiz,
denboraren orratzek
bizia xurgatzen didaten bitartean.

Amodio minez
urkaturiko lorea,
hilerrian erlojuak
lapurtu dituen anderea,
aterperik ez daukan
ameslaria naiz.

Eta gorroto malkoak
nire gorputza
biluzten doazen heinean,
amets hegalaria batean
urtzen naiz.